

(HFP/1030/2021 Ministro-aginduaren laburpena)

Ministro-agindu honek informazio- eta kudeaketa-sistema definitzen du, bai eta informazioa ematea ere, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean jasotako mugarren eta helburuen betetze-mailari buruzko ebaluazioa gauzatzeko, Europako Batzordeak baliabideak transferitzeko eskatzen duen bezala.

Besteak beste, mugari eta helburu kontzeptua ezartzen du, bai eta emaitzaren jarraipena eta egiaztapena egiteko irizpideak ere; etiketatze berdea eta etiketa digitala; izan ere, Bruselak funtsen zati handi bat arlo horietara bideratzea eskatzen du; iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, antzemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea; edo funtsen azken jasotzailea identifikatzea, dela laguntzen onuradun gisa, dela kontratu baten esleipendun gisa edo azpikontratista gisa.

Tresna horren bidez, herri-administrazioetako maila guztietako arduradunek inbertsio publikoko proiektuak planifikatu, jarraitu eta kontrolatzeko gaitasunak garatuko dituzte, eta prebentzio-kudeaketarako gaitasunak indartuko dituzte, bereziki arazoei aurrea hartzeko eta ez-betetzeak saihesteko erabakiak hartzeko aukera ematen dutenak.